



AKTEA/20

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

(2022-06-14)

Batzarraren izaera:	Ohikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2022-06-14 (Asteartea)
Lekua:	Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela)
Hasiera-ordua:	08:00
Amaiera-ordua:	08:07
Alkate-Presidentea:	ABAROA CANTUARIENSE ARITZ
Batzordekideak:	PLATAS ARENAZA M. IDOYA ZUMETA GARRO ALAZNE LEGARRETA ERKIAGA IBON ZUMETA GARRO KEPA
Bertaratu ez direnak:	LEIZAOLA ZULUETA MAITANE
Idazkaria:	MUÑO A ARRIGAIN KARMELE



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E60009F28C00L2U5K2R4Z9Z3

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 14/06/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 14/06/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/06/2022
13:47:54

DOCUMENTO: 20220651916

Data: 14/06/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2022-06-07 TGB (19)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- 21.2 exekuzio unidateko 8 eta 11 partzelak besterentzeko kontratua esleitzea.
- 4.- 2022. urterako udal Aurrekontuan aurreikusita dagoen dirulaguntza nominatiboa bideratzeko, Gaztelugatxe alkarteagaz hitzarmena sinatzea onartzea.
- 5.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 6.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta jarraian deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiak heldu diete. Eraitza honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2022-06-07 TGB (19)

Bertaratutako batzarkideek 2022ko ekainaren 7ko 19/2022 akta irakurrita, aho batez onartzea erabaki dute.

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

3.- 21.2 EXEKUZIO UNIDADEKO 8 ETA 11 PARTZELAK BESTERENTZEKO KONTRATUA ESLEITZEA.

Xedea

21.2 exekuzio unidateko 8 eta 11 partzelak besterentzeko kontratua esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Kontratu honen helburua da 21.2 exekuzio unidateko 8 eta 11 partzelak



Sinadurea eta data

DOCUMENTO: 20220651916



bestereentzea.

Bigarrena: 2022ko apirilaren 5an Tokiko Gobernu Batzarrak erabagi eban, 21.2 exekuzio unidateko 8 eta 11 partzelak bestereentzeko kontratazio espediente eta pleguak onartzea.

Hirugarrena: 2022ko apirilaren 6an lizitazio iragarkia BAO eta Kontratugilearen Profileen argitaratu zan.

Laugarrena: Proposamenak aurkezteko epean, eskaintza honeek jaso ziran:

- Enpresa: ATXATXIN BERRI S.L. Proposamenaren data: 2021-04-19
- Enpresa: IBARRETAS XXI S.L. Proposamenaren data: 2022-04-26
- Enpresa: CONSTRUCCIONES OLABARRI S.L. Proposamenaren data: 2021-04-26

Bosgarrena: Enpresek aurkeztutako dokumentazioa eta proposamenak aztertu ondoren, 2022ko maiatzaren 4an, Kontratazino mahaiak CONSTRUCCIONES OLABARRI S.L. ren aldeko esleipen proposamena egitea onartu eban. Esleipena egin orduko agiriak aurkezteko errekerimendua egin jakon CONSTRUCCIONES OLABARRI S.L. enpreseari 2022ko maiatzaren 9an.

Seigarrena: CONSTRUCCIONES OLABARRI S.L. enpresek, errekerimenduan eskatutako agiriak eta bermea aurkeztu dauz 2022ko maiatzaren 23an.

Argudioak

Lehenengoa: Jasotako eskaintzetatik, honeek izan dira onartuak:

Onartuak:

- ATXATXIN BERRI S.L.
- IBARRETAS XXI S.L.
- CONSTRUCCIONES OLABARRI S.L.

Onartutako eskaintzak baldintza agirien arabera baloratuta, honako hurrenkeraren arabera sailkatuta geratu dira:

Enpresa	Puntuazioa
ATXATXIN BERRI, S.L	86,94 puntu
IBARRETA XXI, S.L	93,15 puntu
CONSTRUCCIONES OLABARRI, S.L	100,00 puntu



Bigarrena: Hurrenkerea jarraituz, CONSTRUCCIONES OLABARRI, S.L. enpreari, esleipena egin orduko agiriak aurkezteko errekerimendua egin jakon 2022ko maiatzaren 9an, baldintza agiri administratiboen 19. atalarekin bat. Enpreseak, 2022ko maiatzaren 23an erantzun deuto aitaturako errekerimenduari.

Hirugarrena: Esleitu orduko agiriak aurkezteko errekerimendua egin ondoren, egiaztatu egin da CONSTRUCCIONES OLABARRI, S.L. enpreseak egindako errekerimendua behar dan moduan bete dauala eta, ondorioz, baldintza agiri administratiboen 19. atalaren arabera, kontratua esleitu beharra dago.

Behin esleipena eginda, kontratua formalizatu behar da eta horren barri emon behar jako esleipendunari, 15 laneguneko epean kontratua sinatu daian.

Baldintza agiri administratiboen 7. atalaren arabera, kontratua formalizatu aurretik honako honeek egin beharko dira:

- Ordainketa-plan bat aurkeztuko da, Bermeoko Udalak onartu beharko dauana eta eroslearentzat loteslea izango dana.
- Kontratua sinatzeko, esleipen-prezioaren % 10 ordaindu beharko da, BEZa barne.

Prezioa ez ordaintzeak, bermea galtzeaz gain, esleipena ebaztea ekarriko dau automatikoki.

Laugarrena: Kontratua esleitu dala jakinarazten dan egunaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eskritura publiko bihurtu beharko da salerosketa-kontratua, hamabi hilabeteko gehieneko epean, partzelen titulartasuna esleipendunaren alde inskribatzeko Jabetza Erregistroan.

Eskualdaketa-eskrituraren unean esleipendunak ez badau esleipen-prezioa ordaintzeko betebeharra bete, edo adierazten dan egunean salerosketa formalizatzeko egintzan parte hartzen ez badau, esleipendunak kontratuari uko egiten deusola ulertuko da, eraturako bermea galduz eta eragindako kalte-galeren erantzukizuna hartuz. Kasu horretan, kontratazio organoak besterentzea puntuazioaren hurrenkeran onartutako hurrengo lizitzaileari esleitzea erabaki ahal izango dau.

Bosgarrena: Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen II. Xedapen gehigarriaren arabera, eskumena alkateak dauka, kontratazio honek ez dauelako gaintitzen ekitaldi honetarako aurrekontuko baliabide arrunten % 10.

2022ko martxoaren 7ko 703 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, ahalmen hori Tokiko Gobernu



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60009F28C00L2U5K2R4Z9Z3

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 14/06/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 14/06/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/06/2022
13:47:54

DOCUMENTO: 20220651916

Fecha: 14/06/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E60009F28C00L2U5K2R4Z9Z3



Batzarrarengan delegatuta dago.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 21.2 exekuzio unidateko 8 eta 11 partzelak besterentzeko kontratua B4810982 IFZ zenbakidun CONSTRUCCIONES OLABARRI, S.L. enpreari esleitzea, 805.115,00 eurotan BEZaz kanpo, esleipendunak aurkeztutako proposamenagaz bat.

BIGARRENA: Esleipendunari ohartarazotea, erabagiaren jakinarazpena jaso eta 15 laneguneko epean, kontratua sinatu beharko dauala eta horretarako honako honeek egin beharko dira:

- Ordainketa-plan bat aurkeztuko da, Bermeoko Udalak onartu beharko dauana eta eroslearentzat loteslea izango dana.
- Esleipen-prezioaren % 10 ordaindu beharko da, BEZa barne.

HIRUGARRENA: Esleipendunak aitatutako 15 laneguneko epean kontratua sinatuko ez baleu, kontratuari uko egiten deusola ulertuko dala ohartarazotea.

LAUGARRENA: Esleipendunari ohartarazotea, salerosketa-kontratua eskritura publiko bihurtu beharko dala, hamabi hilabeteko gehienezko epea, kontratua esleitu dala jakinarazten dan egunaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe horretarako, esleipen prezioa %100ean ordainduta egon beharko da, ordainketa geroratuak sortutako interesak barne.

BOSGARRENA: Esleipendunak aitatutako hamabi hilabeteko epean salerosketa formalizatuko ez baleu edo ez badau esleipen-prezioa ordaintzeko betebeharra bete, kontratuari uko egiten deusola ulertuko dala ohartarazotea.

SEIGARRENA: Esleipendunari, lehiatzaileeri, kontu hartzaileari eta diruzainari erabagia jakinarazotea eta kontratugilearen profilean argitaratzea.

ZAZPIGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

4.- 2022. URTERAKO UDAL AURREKONTUAN AURREIKUSITA DAGOEN DIRULAGUNTZA NOMINATIBOA BIDERATZEKO, GAZTELUGATXE ALKARTEAGAZ HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.

Xedea

2022. urterako udal Aurrekontuan aurreikusita dagoen dirulaguntza nominatiboa bideratzeko,



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60009F28C00L2U5K2R4Z9Z3

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 14/06/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 14/06/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/06/2022
13:47:54

DOCUMENTO: 20220651916

Data: 14/06/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E60009F28C00L2U5K2R4Z9Z3



Gaztelugatxe alkarategaz hitzarmena sinatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2022. urterako udal Aurrekontuan, Gaztelugatxe alkarategaren aldeko dirulaguntza nominatiboa aurreikusten da eta, ondorioz, dirulaguntza bideratzeko hitzarmena prestatu da.

Bigarrena: 2022ko maiatzaren 24an, Idazkaritza Saileko teknikariak hitzarmenaren Justifikatze Memoria eta txosten juridikoa emon eban.

Hirugarrena: 2022ko ekainaren 1ean, kontu hartzaileak aldeko txostena emon eban.

Argudioak

Lehenengoa: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauzen 7/1985 Legearen 5. artikulua, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen dauen 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Orokorra onartzen dauen 39/2015 Legearen 86. artikulua, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, bere 28.1 artikuluan, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak bere 6. artikuluan eta Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen dauen 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengokoetan xedatutakoak hartu dira kontutan.

Bigarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimena arautzen dauen 7/1985 Oinarri Legearen 21.1. artikuluan f) eta s) ataletan jasotakoaren arabera, alkateari jagoko, baina 2022ko martxoaren 7ko 703. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 2022. urterako udal Aurrekontuan jasotzen dan Gaztelugatxe alkarategaren aldeko dirulaguntza nominatiboa bideratu ahal izateko, hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, Ekonomia Sailari eta Diruzaintzari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean egokiak diran argitalpenak egiteko agindua emotea Idazkaritza Sailari.

BOSGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.



5.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.

6.- ESKARI ETA ITAUNAK.

Ez da eskaerarik ezta itaunik egin.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidaturakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Orrri oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E60009F28C00L2U5K2R4Z9Z3

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 14/06/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 14/06/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/06/2022
13:47:54

DOCUMENTO: 20220651916

Fecha: 14/06/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E60009F28C00L2U5K2R4Z9Z3

